


MEMORIA 2021





AURKIBIDEA

I. UPV/EHUko berdintasunerako zuzendaritza.....	1
Berdintasunerako zuzendaritzaren osaera	2
Berdintasun Batzordea	2
II. Jardun ildoak	3
1. Prestakuntzan lortutako emaitzak	3
1.1. Irakasleentzako prestakuntza presentziala	3
1.2. AZPkoentzako prestakuntza presentziala	3
1.3. Ikasleentzako prestakuntza.....	3
1.4. Online prestakuntza	7
2. Ikerketan lortutako emaitzak	15
2.1. UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko AKADEME programa	15
2.2. Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria.....	15
3. Unibertsitate bizitza.....	17
3.1. Sexu aldagaia sartzea	17
3.2. Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa	17
3.3. Protokoloa, pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU izena aldatzekoa.....	19
3.4. STEM graduak nesken artean sustatzeko batzordearen eraketa.....	20
4. Unibertsitate hedakuntza.....	21
4.1. Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea	21
4.2. UPV/EHUko bizitza laborala, familiarra eta pertsonaren Kontziliazio Gida.....	21
4.3. Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean	21
4.4. UPV/EHUko berdintasunerako zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan	23
5. Proiektuak eta eginkizunak.....	24



I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza

UPV/EHUK, unibertsitate publikoa den heinean, emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromiso irmoa du. Horrela adierazten du, besteak beste, Estatutuetako 4.3 artikulua: *UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta dibertsitatearen errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rola eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkartza parekatua.*

Horrela, bada, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean, 2006an, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasunerako zuzendari kargua sortu ziren (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua), 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateak berdintasunerako unitateak martxan jartzera bultzatu baino urtebete lehenago. Zuzendaritza hori konprometitutako talde handi baten lanaren fruitu izan zen: gehienak emakumeak, eta euskal gizarteko eremu eta arlo desberdinetan aukera-berdintasuna lortzeko borrokan ibiliak. Zuzendaritza sortu zenetik asko izan dira aurrera eramandako ekintzak, batetik, zuzendaritzari berari esleitutako eginkizunak betetzeko, eta, bestetik, legeetan zehaztutako helburuak betetzeko; guztia unibertsitateko eremuan ezarrita.

Berdintasunerako Zuzendaritzak 2007an UPV/EHUko Emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin zuen eta emaitza gisa unibertsitateko kolektiboen – ikasle, AZP eta IIP – egoera azalerazi zuen sexuka banatuta unibertsitateko esparru ezberdinetan.

Diagnostiko hori egin ondoren, unibertsitateak, 2009ko maiatzean, erabaki zuen UPV/EHUko Berdintasun Batzordea eratzea, bere eginkizun nagusia izanik UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I Plana egitea, eta bertan zehaztea unibertsitateak bere jardunean berdintasunaren arloan izango zituen jarraibideak. Urte bete beranduago, 2010-2013 aldirako Berdintasunerako I. Plana behin osatuta, Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen kontseiluak onartzeko, eta, horrela, berretsi egin zen unibertsitateak genero berdintasunerako zeukan konpromisoa. I. Plana ezarri ondoren, 2014ko apirilaren 3ko erabakiaren bidez, UPV/EHUko Berdintasun Batzorde Intersektorialak (IRI eta AZPko funtzionarioen eta lan kontratadunen negoziazio batzordeek osatuak) unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2014-2017) onartu zuen.

2019-2022 aldirako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. plan honek, II. planak bezalaxe, bat egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak zehaztutako filosofiarekin, horietan jasota baitago erakunde publikoek zein enpresek berdintasun planak egin behar dituztela indarreko arauetan zehaztutako helburuak betetzeko. Horrela, berdintasunerako III. plan hau osatzeko lanean unibertsitateko Berdintasun Batzordeak, ikastegietako

berdintasun batzordeek eta Berdintasun Batzorde Intersektorialak hartu dute parte. Plana behar bezala garatzeko, bestalde, Emakunderen laguntza dauka 2018ko uztailaren 2an sinatutako hitzarmenaren bidez.

Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera

Zuzendaria: Elena Leïñena Mendizabal	elena.leinena@ehu.eus	946012172
Teknikaria: Enara Agirre Arrizabalaga	enara.agirre@ehu.eus	946018039
Idazkaria: Ana Isabel Ríos Hernández	anaisabel.rihe@ehu.eus	946012171

Berdintasun Batzordea

Maite Muñoz Garcia de Iturrospe	Arteen eta Giza Zientzien irakasle-ikertzailea
Koldo Telleria Andueza	Arkitektura eta Ingeniaritzako irakasle-ikertzailea
Ana Isabel Puente Martínez	Zientzietako irakasle-ikertzailea
David Pastor Andres	Gizarte eta Lege Zientzietako irakasle-ikertzailea
Naiara Agirregoitia Marcos	Osasun Zientzietako irakasle-ikertzailea
Deñe Larrabeiti Mendikute	AZPko langilea
Julen Zabala Alonso	AZPko langilea
Asier Brull Mesanza	Graduondoko ikaslea
Ainize Etxeberria Murgoitio	Graduko ikaslea

Era berean, **UPV/EHUko ikastegi bakoitzean Berdintasun Batzorde bat dago.**

II. Jardun ildoak

1. Prestakuntzan lortutako emaitzak

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburuetako bat, genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzaren arloan barnera daitezen sustatzea da. Horretarako, hainbat prestakuntza ikastaro diseinatu eta bultzatu ditugu unibertsitateko kolektibo guztientzat:

1.1.- Irakasleentzako prestakuntza presentziala

2014tik urtero prestakuntza desberdinak eskaini izan ohi dira UPV/EHUko AZPko irakasleentzat. Hala ere, 2021ean ez da modalitate honetako formakuntza espezifikorik eskaini COVID-19ak sortutako egoeratik eta urte honetan eskaini diren formakuntza ekintzak unibertsitate osorako eskainitako online ikastaroak izan dira.

1.2.- AZPkoentzako prestakuntza presentziala

2014tik urtero prestakuntza desberdinak eskaini izan ohi dira UPV/EHUko AZPko kideentzat. Hala ere, 2021ean ez da modalitate honetako formakuntza espezifikorik eskaini. Urte honetan AZPko langileei eskaini zaizkien formakuntza ekintzak unibertsitate osorako eskainitako online ikastaroak izan dira.

1.3.- Ikasleentzako prestakuntza

Berdintasunerako Zuzendaritzak genero ikuspegia bultzatu nahi du ikasleek aurkeztutako gradu (GRAL) eta master (MAL) amaierako lanetan. Horretarako, 2021ean, aurreko urteetan bezalaxe, gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeagatik sari hauek eman zaizkie UPV/EHUko ikasleei:

- **Genero ikuspegia gradu amaierako lanetan barne hartzearen Francisca de Aculodi saria**

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) 1.2.4. puntuaren aurreikusitako ekintza betetz, *Genero ikuspegia lantzen duten gradu eta master amaierako lanen garrantzia sendotzea Francisca de Aculodi eta María Goyri sarien bidez*, alegia, UPV/EHUk FRANCISCA DE ACULODI sariaren VII. ediziorako deialdia egiten du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

2021eko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Francisca de Aculodi sariaren VII. edizioako sariak banatu ziren (2020an defendatutako GRALak) guztira 42 GRAL aurkeztu ziren. 2021eko udazkenean sariaren VIII. edizioako lanak aurkeztu dira,

guztira 40, eta hauen epaia 2022an izango da. Hemen aurkeztutako GRALen banaketa:

AURKEZTUTAKO GRADU AMAIERAKO LANAK		
	VII. EDIZIOA	VIII. EDIZIOA
Gizarte eta Lege Zientziak	30	28
Arte eta Humanitateak	8	6
Osasun Zientziak	2	4
Ingeniaritza eta Arkitektura	2	2
Zientziak	0	0
GUZTIRA	42	40

Azken edizio honetan, aurkeztutako lanen kopurua mantendu egin da, orohar, aurreko ediziotik aldaketa txiki batzuk egon arren. Aurreko urteetan bezala tradizio gutxiagoko jakintza esparruetan zailtasunak daude, oraindik ere, lanak aurkezteko orduan.

Ondorengo taulan ikus daitezke Francisca de Aculodi sariko VII. Edizioko sarituak:

FRANCISCA DE ACULODI SARIKO VII. EDIZIOKO SARIDUNAK			
Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Asilo eskubidea eta generoa – Emakumeen mutilazio genitala aztergai-</i>	Libe De La Puente Ruiz
	Gaztelania	<i>Altas capacidades intelectuales, algo más que ser inteligentes: alumnas adolescentes con altas capacidades intelectuales y su autoconcepto</i>	Naroa Martos Sanchez
Arte eta Giza Zientziak	Euskara	<i>Hizkera inklusiboa, oraingo itzultzaileen erroka: testuinguru teorikoa eta euskara-gaztelaniako itzultzaileen jarduna</i>	Sonia Morentin Gual
	Gaztelania	<i>Cena de familia</i>	Noemí Morcillo Rodriguez
	Euskara	<i>Hutsik</i>	
	Gaztelania	<i>Consumo de antidepresivos en el País Vasco: análisis cuantitativo con perspectiva de género</i>	Joseba Corada Prieto



Osasun Zientziak			
Ingeniaritza eta Arkitektura	Euskara	<i>Espainiako erresumako eta Poloniako pobrezia energetikoaren analisia</i>	Mikel Sarasola Artolazaga
	Gaztelania	<i>Systems to decrease gender bias in classifiers</i>	Oier Irazabal urrutia

- **UPV/EHUko Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen Maria Goyri saria**

UPV/EHUko emakume eta gizonen berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) lan ildoak jarraiki UPV/EHUK MARIA GOYRI sariaren X. ediziorako deialdia egiten du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

AURKEZTUTAKO MASTER AMAIERAKO LANAK		
	Guztira	Jakintza arloen arabera
VII. Edizioa (2017/2018)	6	3 Gizarte eta Lege Zientziak 3 Arte eta Giza Zientziak
VIII. Edizioa (2018/2019)	16	8 Gizarte eta Lege Zientziak 4 Arte eta Giza Zientziak 1 Zientziak 2 Osasun Zientziak 1 Ingeniaritza eta Arkitektura
IX. Edizioa (2019/2020)	8	6 Gizarte eta Lege Zientziak 1 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak
X. Edizioa (2020/2021)	16	12 Gizarte eta Lege Zientziak 2 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak 1 Ingeniaritza eta Arkitektura

Ondorengo taulan 2021eko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean saritutako lana:

MARIA GOYRI SARIKO VIII. EDIZIOKO SARIDUNA	
<i>Euskal ipuingintza garaikidea genero-politikaren argitan: maskulinitate eta feminitate ereduak aztergai</i>	Nagore Fernandez Zabala

Aurtengo edizioan gorakada nabaria izan da aurkeztutako lan kopuruan; nahiz eta hau jakintza esparru tradizionaletan ematen den.



- LGTB ikuspegia Gradu Amaierako eta Master Amaierako Lanetan barne hartzearen Empar Pineda saria

UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) 4.2. puntuari aurreikusitako helbururantz aurrera egiteko ahaleaginean, "*Genero edo orientazioagatiko aniztasuna errespetatuko duen unibertsitate eremua bultzatzea*". Helburu hau betetze aldera UPV/EHUk Empar Pineda sariak antolatzen ditu eta aurten I. edizioari sariak emateaz gain II. edizioa ere antolatu da. Sari honen helburua Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan LGTB ikuspegia barne hartzen duten lanak balioestea da eta aniztasuna unibertsitatean ere aldarrikatzea.

AURKEZTUTAKO LANAK	
	Guztira
I. Edizioa (2019/2020)	6
II. Edizioa (2020/2021)	16

EMPAR PINEDA SARIKO I. EDIZIOKO SARIDUNAK		
Euskara	<p><i>Loratuz. Haurren sexualitate eta sexu hizketaren dibulgaziorako euskarri digitala</i></p> <p>Accesita</p> <p><i>Bollera identitateko subjektu politikoaren egituraketara: Hego Euskal Herriko bollera taldeen diskurtso eta praktiketara bidaia</i></p>	<p>Maddi Erauskin Adarraga</p> <p>Eva Perez-Pons Andrade</p>
Gaztelania	<p><i>Resiliencia, inteligencia emocional e identidad en lesbianas, gais y bisexuales (LGB)</i></p>	<p>Estibaliz Cepa Rodriguez</p>

	<p style="text-align: center;">Accesit</p> <p style="text-align: center;"><i>Aproximación al drag desde una perspectiva antropológica, feminista y queer</i></p>	<p style="text-align: center;">Ander Lizarralde Arrieta</p>
--	---	---

1.4.- Online prestakuntza

2021ean ere online prestakuntzen eskaintza mantendu egin da ikasturtean zehar eskaintako bi deialdietan.

Hizkuntza inklusiboa

Pikara Magazine komunikabide digitalak *Hizkuntza Inklusiboa* ikastaroa prestatu zuen euskaraz zein gaztelaniaz UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzarentzat eta bigarren ediziotik UPV/EHU barneko irakasleen zuzendaritzapean eskaintzen da.



Izendatzen ez dena ez da existitzen lemapean, kazetari, filologo pedagogo eta antropologoek hizkuntzaren garrantzia azpimarratu dute kultura patriarkalaren elementuak hedatzeko orduan.

Hizkuntza inklusiboko ikastaroarekin batera, Hizkuntza inklusiboko gida osoa eta gida azkarra ere Unibertsitate osora banatu dira, komunitate osoak erreminta hauek eskuragarri izan ditzan.

Hezkidetzaren alde busti!

Hezkidetzaren alde busti! ikastaroa *Hezkidetzan esku hartzen* ikastaroko profesionalek prestatu zuten UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzarentzat eta bigarren ediziotik zuzentzaile panel osoa UPV/EHUko irakasleek osatzen dute.

Ikastaro honen helburua etorkizunean adin txikikoekin lan egingo duten ikasleak hezkidetzan formatzea da. Hori dela eta, fakultate konkretu batzuetako ikasleei baino ez zaie eskaini: Letrak, Hezkuntza, Hezkuntza eta Kirola, HEFA eta Lan Harremanak eta Gizarte Langintza. Ikastaro hau, besteak ez bezala, euskaraz bakarrik eskaini da eta 75 orduko iraupena du.



Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak



Bi ikastaro hauek, euskaraz zein gaztelaniaz, Emakunderekin elkarlanean eskaintzen dira. Emakundek materialak eta zuzentzaile panela prestatzen dituen bitartean, UPV/EHU ikasle parte-hartzaileez eta plataformaz arduratzen da.

Emakume eta gizonen berdintasuna ikastaroak ikasleek errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertu ahal izateko ezagutza teoriko-praktikoak lortzea izan du helburu. Gainera, genero-diskriminazioak hautematea eta horiek gainditzeko proposamenetan aurrera egitea ahalbidetuko duten askotariko tresna teoriko eta metodologikoetan trebatu beharko dira. Horretaz gain, mugimendu feministaren historia ezagutzea nahi da, egungo egoera

ulertzeko ezinbesteko marko gisa.

Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak ikastaroak ikasleek gure gizartean maskulinitasunaren eraikuntza soziala aztertzeko gaitasun teoriko eta praktikoak garatzea izan du helburu. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egitea da asmoa, eta, horretarako, errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak eta errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak eskuratu behar dira. Gure gizarteetan dauden maskulinitasunaren adierazpen anitzak ere jorratuko dira, baita horrek emakumeei eta gizonei beraiei ekartzen dizkien ondorioak ere.



Sexu-dibertsitatea

Ikastaro honekin online ikastaroen eskaintza indartu eta sakontzea da UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburua. Horretarako Gizonduz programako taldearekin harremanetan jarri eta Gran Canariako kabildoan martxan izan duten ikastaro hau gure komunitatera ekartzea lortu dugu. Ikastaroaren egileen artean estatu mailako hainbat aditu daude, hala nola, Lucas Platero, Noemí Parra edo Gerard Coll.



Ikastaro honen helburua bizi dugun gizartearen hausnarketa eta ikerketa gune bihurtzea da. Bertan

genero identitateen definizio hegemonikoak ikertuko ditugu eta, baita, hauek gure bizi eta pentsatzeko moduan duten eragina, desberdintasun eta diskriminazioak sortuz. Gizarte normalizazioa sexu, genero, genero-adierazpen eta sexu orientazio arauetan oinarrituta dago. Ezarritako arauak jarraitzeak "normal" kategorია ematen du eta eskubide-pribilegio batzuk eman. Beste era batzuetan pentsatu, sentitu eta jokatzeko dutenek aldiz ez dituzte eskubide-pribilegio hauek izango.

Sexu aniztasuna eta genero identitatea esanahi anitzeko kontzeptuak dira eta esperientzia konplexuak sortzen dituzte gizarte testuinguru eta momentu historikoak baldintzatuta.



Emakumeen aurkako indarkeria

Ikastaro honen helburua da indarkeria matxistaren fenomenoari buruzko ulermen esparru zabalagoa eskaintzea, ikasleek indarkeria mota horren adierazpideak identifikatzen eta horiei era eraginkorrean aurre egiten ikas dezaten. Ikastaro hau UPV/EHUK eta Emakunde sinatutako hitzarmenaren baitan sartzen da eta egilea Sortzen elkarte da.

Indarkeria matxistak gizarte arazo gisa aztertuko dira ikastaroan, alderdi hauei erreparatuta: erasoen inguruabarrak, indarkeriaren iraupen eta ugaritze faktoreak eta aro berrietara zer-nola egokitzen diren. Hainbat genero indarkeria mota aurkeztuko dira, sexu indarkeria sakonago aztertzeko asmoz maila estruktural, sinboliko eta zuzenekoan, eta erlazio afektibo-sexualen esparruan. Azkenik, biktimek, erasotzaileek eta partaide diren pertsonen eraso horiek nola bizi dituzten aztertuko da. Hala nola euren prozesuak, eta eskura ditzaketen tresna erabilgarriak, zerbitzuak, baliabideak eta laguntzak.



Haurren kontrako sexu-abusuak

Ikastaro honen helburua haurren aurkako sexu abusuari eta haren ondorioei



buruzko gogoeta egitea da, besterik gabe, arazoa aurkeztea nolabait. Haurren aurkako sexu abusua zenbait ikuspegitik aztertuko da horretarako. Horien artean daude, besteak beste, ikuspegi judiziala, pedagogikoa, prebenitzeko eta antzemateko alderdiak, bai eta era horretako abusuei heltzeko dauden protokoloak ere.


Prestakuntzaren bidez, ezagutzak barneratzeaz gain, komunitatean gogoeta egiteko aukera ere izango da, sareko profesionalek zalantzak eta galderak adieraziz.

Formakuntza hau Gure Sarea elkarteak sortu du UPV/EHUrentzat eta oso harrera ona izan du, bereziki ikasleen artean.



I Online ikastaroen VII. Edizioa, 2020/2021 ikasturtea, negua

ONLINE IKASTAROA	IRAUPENA	ESKAINITAK O PLAZAK	IZEN-EMATEAK				ONARTUAK				AKREDITATUAK			
			E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA
Emakume eta gizonen berdintasuna	25 ordu	200	220	35	1	256	179	20	1	200	99	17	0	116
Hizkuntza inklusiboa	25 ordu	200	190	47	10	247	154	40	6	195	93	18	2	113
Maskulinitateak	25 ordu	200	146	53	4	203	108	41	3	152	70	29	2	101
Sexu-dibertsitatea	30 ordu	200	241	42	6	289	165	32	3	200	89	21	2	112
Hezkidetzaren alde Busti!	75 ordu	100	68	11	3	82	66	16	3	85	23	3	1	27
Haurren aurkako sexu abusuak	30 ordu	200	264	35	4	303	169	27	4	200	110	13	2	125
Emakumeen aurkako indarkeria	25 ordu	200	203	26	4	233	171	25	4	200	114	19	4	138
GUZTIRA		1300	1332	249	32	1619	1012	201	24	1237	598	120	13	732
			%82'27	%15'38	%2'35		%81'81	%16'25	%1'94		%81'69	%16'39	%1'92	




1 Irudia: Guztira ikastaroetan akreditatutako pertsonen ehunekoa



II Online ikastaroen VIII. Edizioa, 2021/2022 ikasturtea, udazkena

ONLINE IKASTAROA	IRAUPENA	ESKAINITAK OPLAZAK	IZEN-EMATEAK				ONARTUAK				AKREDITATUAK			
			E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA
Emakume eta gizonen berdintasuna	25 ordu	200	164	30	1	195	142	29	0	171	72	7	0	79
Hizkuntza inklusiboa	25 ordu	200	153	24	6	183	146	22	6	174	85	8	3	96
Maskulinitateak	25 ordu	200	112	56	2	170	101	49	1	151	49	21	0	70
Sexu-dibertsitatea	30 ordu	200	222	37	7	266	166	29	5	200	94	11	2	107
Hezkidetzaren alde Busti!	75 ordu	100	90	38	1	129	68	31	1	100	40	21	1	62
Haurren aurkako sexu abusuak	35 ordu	200	239	17	1	257	185	15	1	201	114	8		122
Emakumeen aurkako indarkeria	25 ordu	200	194	17	1	212	180	17	1	198	106	8	1	115
GUZTIRA		1300	1174	219	19	1412	988	192	15	1195	560	84	7	651
			%83'14	%15'51	%1'35		%82'67	%16'07	%1'26		%86'02	%12'90	%1'08	



2 Irudia: Guztira ikastaroetan akreditatutako pertsonen ehuneko



2. Ikerketan lortutako emaitzak

Hainbat azterlanek, UPV/EHUko ikerketen esparruan emakumeen eta gizonen parte hartzeari buruzko diagnostikoak (2007-2011) eta urtero UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ateratzen duen *Berdintasuna zenbakitan* txostenak egoera bera azaleratzen dute: ikerketetan desberdina dela emakumeen eta gizonen egoera. Horren arabera, dagozkion neurriak hartu beharko dira, berdintasunerako bidean aurrera egiteko.

Ekintza positibo bezala ikerketa proiektuak aipa genitzake, berdintasunaren arloan eta gutxiegi ordezkatuta dauden beste batzuetan, 2 puntu gehiago ematen dira, Ikertzaile Nagusia emakumea bada.

Oinarri honetatik abiatuta, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo ekintzak jasotzen ditu:

2.1.- UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko **AKADEME** programa

Berdintasunerako Zuzendaritzak, HELAZekin batera, **AKADEME programa** ezarri eta eskaintzen du 2015/2016 ikasturtetik, UPV/EHUko emakumezko akademikoen lidergoa bultzatzeko. Haren helburu nagusia emakume akademikoen lidergo gaitasunak hobetzea da, eta parte hartzaileen arteko babes sare batean parte har dezaten sustatzea, non erantzukizuneko lanpostuetan sartzeko edo haietan irauteko ahalduntze kolektiboa motibatu eta sustatuko den. Orain arte Akademe programan 150 emakumek baino gehiagok hartu du parte.



2020/2021 ikasturtean ez zen Akademe programa antolatu COVID-19ko alerta zela eta, programan presentzialtasuna beharrezko jotzen baita. 2021/2022 ikasturterako aldiz deialdia udaberrira pasatu da eta bi talde osatu dira: Donostiako taldea 11 emakumerekin eta Leioakoa 17rekin.

2.2.- Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria

Ikerketan genero ikuspegia bultzatzeko, baita genero ikerketak eta ikerketa feministak ere, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III Planaren 2.1.2. - *Micaela Portilla Saria sendotzea (ikasketa feministei edo generoari buruzko UPV/EHUko tesi onenari ematen zaion saria)*.- ekintza betetzearren, UPV/EHUK MICAELA PORTILLA VITORIA Sariaren VI ediziorako deialdia egiten du ikasketa feministei eta genero ikasketei buruzko UPV/EHUko tesi onenarentzat.

2021eko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Micaela Portilla Sariaren VIII. Edizioko saria banatu zen parte-hartzailearen artean. Aurten IX. Edizioko deialdia atera da eta 2 parte-hartzaile izan ditu, dena den, edizio honen irabazleak saria 2022ko ekitaldian jasoko du. 2013tik banatzen da eta urte hauetan zehar **40**



hautagaitik gora aurkeztu dira.

Micaela Portilla sariko azken hiru irabazleak		
Edizioa	Tesia	Egilea
VI. Edizioa (2017)	<i>La triple presencia. Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica</i>	Marina Sagastizabal Emilio-Yus
VII. Edizioa (2018)	<i>Del paisaje al cuerpo: una crítica feminista de la patrimonialización del encaje en la Costa da Morte</i>	Guadalupe Jiménez Esquinas
VIII. Edizioa (2019)	<i>La depresión y su recuperación. Una etnografía feminista y corporal</i>	Maria Zapata Hidalgo
IX. Edizioa (2020)	<i>Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografía bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak</i>	Miren Guillo Arakistain



3. Unibertsitate bizitza

3.1.- Sexu aldagaia sartzea

UPV/EHUn datuak sexu aldagaia aintzat hartuta biltzen dira beti eta normalduta dago sexu aldagaia duten datuen bilketa eta transferentzia. Datu hauei esker urtero argitaratzen dugu UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzatik *Berdintasuna Zenbakitan* txostena. Txosten honek unibertsitatearen argazki kuantitatibo bat eskaintzen digu emakume eta gizonen presentziari dagokionez, desberdintasunak identifikatu eta lan ildoak markatzeko helburuarekin.

3.2.- Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa

2018ko ekainetik Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa indarrean da eta 2018ko abendutik Genero Indarkeriazko Arretarako Batzordea ere eratuta dago, azken hau da Berdintasunerako Zuzendaritzara heltzen diren indarkeria kasuez arduratzen dena.

- **Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloaren aurkezpenak:**

Protokoloak berak arautzen duen bezala, urtero aurkezpenak egin behar dira hiru campusetan protokoloa unibertsitate osoan ezagutzera emateko. 2021ean, COVID-19ak sorturiko egoera dela eta aurkezpena streaming bidez egin da hiru campusetako kideentzat aldi berean.


2021ean UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzara jakinarazitako indarkerietan gorakada izan da. Ondorengo taulan ageri dira artatutako kasuak:

	Salatzaileak		
	Ikasleak	AZP	IIP
Indarkeria fisiko-psikologikoa	7	2	0
Sexuagatiko jazarpena	0	0	2
Sexu jazarpena	11	0	1
Indarkeria psikologikoa	0	1	0
GUZTIRA*	18	3	3

* 2021ean 24 kasu izan ditugu guztira, erdia (12) aurreko urte/urteetatik datozenak eta tartekako jarraipenean daudenak dira. Kasuetatik 6 berriak dira ikasleen artean. Irakasleen artean, berriz, 3ak berriak dira eta, AZPren artean ere beste 3ak berriak dira.



- **UPV/EHUko Genero indarkerien aurkako protokoloko kartela egiteko sariaren IV. Edizioaren deialdia:** Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa ezagutarazi eta ikasleen artean zabaltzeko, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo deialdia antolatzen du (5. Artikuluaren arabera *Hartu beharreko neurriak*). Honen helburua Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa ikasleen artean ezagutzera ematea da, hauek baitira indarkeria kasu gehien bizi dituztenak. Aurten laugarren edizioa ospatu da eta, partehartzaile kopurua nabarmen jaitsi bada ere, 17 hautagai izan dira. Hemen saridunak:
 - **Epaimahaiaren saria:** hutsik geratu da
 - **Publikoaren saria:** Ylenia Alonso Edeso.



3 Irudia: Publikoaren saria jaso duen

- **INDARTU. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:** Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloaren Atarikoan esaten denez, unibertsitatearen helburua da *unibertsitatean giro segurua mantentzea eta sustatzea UPV/EHU osatzen duten pertsona guztientzat, genero indarkerietatik at*. Era berean, azpimarratzen da *unibertsitateak ez du[ela] genero indarkerien inongo adierazpenik onartuko eta bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu[ela] jarrera eta portaera horiei aurre egiteko*. UPV/EHUrentzat genero indarkeriaren eremuan sartzen diren jarrerak eraso egiten diote pertsonen berdintasun eskubideari eta osotasun fisikoari, psikikoari eta duintasunari. Protokoloaren bidez, *unibertsitateak konpromisoa hartzen du jarrera horiek prebenitzeko eta horiei irmo eta sendo aurre egiteko*.

2021ean programaren **hirugarren edizioa eraman da aurrera** eta, aurrekoak ez bezala, online eran eman da programa. Aldaketa honekin COVID-19ak sorturiko egoerara moldatzeaz gain hiru campusetako neskak batera aritu dira lanean. Hizkuntza bakoitzean 65 plaza eskaini baziren ere orotara 253 emakumek eman zuten izena, 110ek euskaraz eta 143k gazteleraz eta. Azkenean programa 34 emakumek gainditu zuten euskaraz eta 36k gazteleraz.



- **ERALDATZEN. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:**

Programaren helburu nagusia da abian jartzea gizonek kontzientzia hartzeko eta dagokien ardura beren gain hartzeko prozesu bat, eurekin zerikusi zuzena daukaten arazo honetan, genero indarkeriak prebenitzeko estrategia gisa.

Programa **gizonezko ikasleei bakarrik dago zuzenduta**, espazio bat sortzeko gizonek gogoeta egin dezaten beren genero sozializazioaz eta genero indarkerien aurrean duten jarrereaz, eta beren erantzukizun eta inplikazioari buruzko erabakiez. Ikasleok UPV/EHUko edozein campusetakoak eta edozein mailatakoak izan daitezke.

2021en, Indartu programarekin batera, online jarri da martxan Eraldatzen programako I. edizioa eta 13 gizonezkoak amaitu dute.

3.3.- Protokoloa, pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU n izena aldatzekoa:

Berea duten baina ukatu zaien identitate batez bizi nahi duten pertsonentzat sufrimendu iturri nagusietako bat da jarraitu behar izatea jasaten eurek propiotzat ez duten izenaz dei diezaieten. Propiotzat duten identitateranzko bidean abiatu diren pertsonen izenak hautatutako izena aitortzea ez da bakarrik begirune kontu bat: pertsona orok nahi duen modukoa izateko, nahi duen bezala agertzeko eta nahi duen moduan bizitzeko dituen eskubideen baitan kokatzen da.

Aitorpen hau autonomia erkidegoko, estatuko eta nazioarteko zenbait arautan oinarritzen da. Batetik, aipa daiteke 3/2007 Legea, martxoaren 15koa, pertsonen sexuaren aipamena erregistroan zuzentzeko prozedura arautzen duena, eta dokumentazio administratiboa pertsonaren benetako genero identitatera egokitzeko bidea ematen duena. Autonomia erkidegoan, bestalde, ekainaren 28ko 14/2012 Legea dugu, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, aurrera egiten lagundu duena pertsonen ezaugarri edo inguruabar pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminazioak gainditzeko bidean; eta 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa, non garatzen den 14/2012 Legearen II. kapituluko 7. artikulua, dioena pertsona transexualek aukera izango dutela dokumentazio egokia izateko sexuaren aipamena erregistroan zuzendu artean.



4 Irudia: Protokoloaren azala

www.ehu.es



Protokolo honekin UPV/EHUK bere konpromisoa adierazten du unibertsitateko kideen genero identitateari lotutako premiak asetzeko, eta bermatzeko genero identitatearen agerpen eta adierazpen askea, eta genero identitatean oinarritutako diskriminazio ororen desagertzea. Konpromiso hori jasota dago unibertsitatearen Estatutuetan (4.3, 13.1 eta 70. art.) eta 2018ko ekainaren 7an Gobernu Kontseiluak onartutako Genero Indarkerien aurkako UPV/ EHUren Protokoloan.

Protokolo hau 2021eko uztailaren 23ko UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluan onartu zen eta ordutik 11 pertsonak eskatu dute izen-aldaketa.

3.4.- STEM graduak nesken artean sustatzeko batzordearen eraketa:

UPV/EHUKo Berdintasunaren III Planaren 3.2. helburua aintzat hartuz, hau da, zientzia eta teknologiarako bokazio goiztiarrak bultzatzea, bereziki emakumeen artean, Berdintasunerako Zuzendaritzak 2021eko udaberrian STEM Batzordea eratu zuen unibertsitatearen baitan.

STEM Batzordea zientzia eta teknologiarako graduak eskaintzen dituzten unibertsitateko fakultateetako ordezkariak osaturik dago, hain zuzen ere zentro hauetakoetako ordezkariak: Ingeniaritza Fakultatekoak, Arkitektura Eskolakoak, Informatika Fakultatekoak, Kimika Fakultatekoak, Zientzietako Fakultatekoak eta Magisteritza Fakultatekoak.

Batzorde horrek finkatutako ildoen arabera, Berdintasun Zuzendaritzak 2021ean on line ikastaroen eskaintza zabaldu du hezkuntza ertainarekin lan egiten duten orientatzaileengana, unibertsitateko ikasleen orientazio zerbitzuaren onspenarekin.



4. Unibertsitate hedakuntza

4.1.- Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea

UPV/EHUko organo kolegiatuen amaierako osaera orekatua (gizonak eta emakumeak) lortzea ahalbidetzeko **kremailera erako zerrendak** bultzatzen ari gara. Horrekin batera, Berdintasunerako Zuzendaritzak UPV/EHUko ikastegietako berdintasun batzordeen jarraipena egin, eta haiekin harremanetan egoten da, eta ekimen guztietan parte har dezaten bultzatzen du.

4.2.- UPV/EHUko bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren Kontziliazio Gida

2021eko abenduaren 31kako datarekin onartutzat eman da **UPV/EHUko Kontziliazio Gida**, Errektoretza taldea eta unibertsitatean ordezkariak duten sindikatuen artean adostu ondoren. Gida honek, uneotan, dauden neurriak islatzen baditu ere, dokumentu bizia izango da eta ondorengo hilabeteetan hobekuntzen negoziazio prozesu bat jarriko da habian.

4.3.- Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean

- **Martxoaren 8a:** 2021ean ekitaldi akademiko instituzional honen hamaikagarren edizioa ospatu zen **Arabako campuseko Pabilloian**. COVID-19ko protokoloa zela eta, 33 pertsona bakarrik bertaratu ahal izan ziren ekitaldira; hau da, omendu, saritu eta unibertsitateko ordezkariak. Hala ere, ekitaldia streaming bidez hedatu zen eta 100 pertsona konektatu ziren bertara.

Antolakuntza UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren esku egon zen zuzenean. Gainera, ibilbide akademiko oparoa izan zuten bost emakume omendu ziren.

Jakintza arloa	Omendua
Gizarte eta Lege Zientziak	Miren Ortubay Fuentes
Zientziak	Maria Dolores Guillén Loren
Arte eta Humanitateak	Itziar Idiazabal Gorrotxategi
Osasun Zientziak	Aurora Fernandez Astorga
Ingeniaritza eta Arkitektura	Esther Rodriguez Urbano

Omenaldiaz gain, urtero bezala Francisca de Aculodi, Maria Goyri eta Micaela Portilla sariak banatu ziren.



5 Irudia: Martxoak 8ko ekitaldiko omenduak Errektorearekin

- **Martxoaren 8ko ekitaldiko kartel lehiaketa:** 2021ean, aurreko urtean bezalaxe, Martxoaren 8ko ekitaldiko kartel lehiaketa antolatu da eta honen helburua Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalari publizitatea ematea da, bereziki ikasleen artean. Guztira 16 ikaslek hartu dute parte.
- **Martxa Lila:** 2021ean, COVID-19ak sortutako egoera dela eta ez da antolatu Martxa Lila.
- **UniDibertsitatea eguna:** 2021ean ekitaldi akademiko instituzional honen lehen edizioa ospatu zen **Bizkaiko Hezkuntza fakultateko Juliana aretoan.** Lehen edizio honetan Empar Pineda saria eta UniDibertsitatea film laburren lehiaketako sariak ere banatu ziren. Horretaz gain, Empar Pineda bera ere omendu zen (bere senideak etorri ziren bere ordez), aniztasunaren alde bizi



6 Irudia: Empar Pinedaren senideak oroigarria jasotzen Idazkari Nagusiaren eskutik

osoan zehar egin duen lanagatik. COVID-19ko protokoloa zela eta presentzialki jende gutxi batu bazen ere streaming bidez ere hedatu zen ekitaldia.



- UPV/EHUko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna (2021eko azaroak 25)

2021ean ekitaldi akademiko instituzional honen lehen edizioa ospatu zen **Bizkaiko Hezkuntza fakultateko Juliana aretoan** azaroaren 24an. Inaugurazioa UPV/EHUko Idazkari Nagusiaren eskutik joan zen eta bertan bi ekintza nagusi eraman ziren aurrera. Batetik, emakumeen aurkako indarkerien kontestualizazioari buruzko hitzaldia, eta bestetik, UPV/EHUko Genero Indarkerien aurkako protokoloaren aurkezpena.

COVID-19ak sortutako egoera dela eta aurrez aurreko ekitaldia izateaz gain *streaming* bidez ere hedatu zen.

4.4.- UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan eta ekitaldietan

2021ean zehar UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak eta UPV/EHUko berdintasunerako politikek **91 agerraldi** izan dituzte komunikabideetan. Gorakada nabaria ikusten da, bereziki unibertsitateak aniztasunaren alde aurrera eginiko ekimenek bultzatuta. Aipatzekoa, halaber, da Pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHUen izena aldatzeko protokoloa onartzeak komunikabideetan izan duen oihartzuna.

Halaber, Berdintasunerako Zuzendaritzak berdintasuna eta aniztasunaren alde egiten ari den lana zabaltzeko, hainbat artikulu idatzi ditu barne zein kanpoko aldizkarietarako, besteak beste, UPV/EHUko Campusa aldizkarirako eta Almeria Unibertsitateko IgUAL aldizkarirako.

Era berean, 2021ean zehar UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak parte hartu du hainbat jardunaldi, foro eta ekitalditan, zeinetan hedatu egin duen unibertsitatearen konpromisoa berdintasuna eta aniztasunarekin. Ekitaldiak hauek izan dira: Unigual Jardunaldiak Madrilgo Unibertsitate Complutensean, Genero, Enpresa eta Ekonomia Jardunaldia Sarrikoko Fakultatean, LGTB Jardunaldi Akademikoa Bizkaia Aretoan, Ikerbasque Foroa Bilbon duen egoitzan, Gender and Women Jardunaldia Enlight proiektu europarraren barnean; Aspegi Foroa delakoan, Gladys del Estal Sarian, Genero politikak unibertsitateetan – CRUE lan taldearen barnean.



5. Proiektuak eta eginkizunak

2021ean zehar Berdintasun Zuzendaritzak, unibertsitateko eragilea den aldetik, erabaki du, Estatuko zein Europako unibertsitateekin batera, sare batean parte hartzea hainbat proiektu ardatz hartuz (Enlight eta UniSafe proiektuak). Parte hartze horrek Zuzendaritzaren lana eta emaitzak nazioartean ezagutaraztea ahal bideratuko du.

2021ean, aurreko urteetan bezala, lanean aritu dira Zuzenbide Fakultateko 3 bekadun berdintasun arloan nagusi diren esparruak garatzen. Hori dela eta, horietako bi ikaslek «unibertsitate igualitario» bat egiaztatzeko adierazleak zehazten lan egin zuten, eta hirugarren ikasleak, berriz, emakume zientifikoek ekarpenak eguneratzen Zuzendaritzaren webgunean.

Berdintasunerako Zuzendaritzaren lana 2021ean beste hainbat eginkizunekin osatu da, zeinetan berdintasunari eta aniztasunari buruz egin zaizkion galderei eta planteatutako zalantzei erantzun egin dien.

Era berean, Zuzendaritzak sortutako lankidetzaren proposamen guztietan parte hartu du, berdintasunaren eta aniztasunaren inguruan bere ekarpenak eginez (IKD i3 proiektuetako plangintzan, Emakundek antolatutako sarietan, e.a.).